

GLOSATEGIA

Zerrenda honetako hitzak eta kontzeptuak liburuan zehar agertzen dira edota bertan esaten direnak hobeto ulertzeko komenigarri kontsideratu dira.

Sarrera bakoitzaren azalpenaren aurretik ingeles, gaztelania eta frantsesaren parekoak jarri dira, hurrenez hurren.

A posteriori: irrati- ala telebista-kontsumoa egin eta gero burututako ikerketalana da. Beraz, inkestatutak gogoratzen duena kontuan hartuta erantzuten du. Bi multzotan antolatzen dira galderak: atzoko kontsumoan sakondu nahi duena eta ikus-entzulearen ohiturak ezagutzeko egiten dena.

Acces prime-time: gaur egungo telebistaren emisio-ordu preziatuenaren aurreko tartea, 20:00-21:00. Garrantzitsua izaten da *prime-timera* audientzia garraiatzeko jokalekua izaten delako. Azken denboraldian 13:00-15:00 tarteari ere *access* izena eman izan zaio, kasu honetan bazkalosteko *access*-a.

Affiliates: AEBko *network*, alegia, telebista edo irrati-kate bateko partaide diren kanalak edo emisorak. Kanalek edo irratiak berek propio eraikitako programazio-taulan katean datozen saioak kokatu behar izaten dituzte. Ordainean, katean bildutako kanalek programazio horren inguruan lortzen den publizitatearen parte bat ordaindu beharko diote *network*-ari. Tokian tokiko desberdintasunen gainera, Localia Gipuzkoa edo Canal Bizkaia lirateke Localia Televisión delako *network*-aren kanal afiliatuak.

Audientzia (*Audience/Wiewership; Audiencia; Audience*): Hedabide desberdinak irakurri, ikus edo entzun dutenek osaturiko jende-multzoa. Irratiaren eta telebistaren kasuan, audientziaren partaide kontsideratuak izateko nahikoa da hargailuak martxan daudeneko tokian egotea.

Audientzia metatu (*Reach; Audiencia acumulada; Audience cumulée*): denbora batez —minutu bakarra izaten da nahikoa— irratia edo telebista ikus/entzun duten pertsonen kopurua.

Audimetria (*Audiometrie; Audiometria; Audiométrie*): telebistaren zein irratiaren audientzia modu automatizatuan neurtzeko sistema. Etxeetan jarritakoen zein soinean eramaten dituzten tramankuluen bidez, panelkideek zein irrati edo telebista ikus-entzuten duten jakin daiteke. Jasotako informazioa datu-basera igortzen da telefonoz egunaren amaieran, eta, biharamunerako, bezeroen esku dago. Audimetriaren historian eredu desberdinak erabili dira, etxebizitzakoa (*household/set meter*), pertsonala (*people meter*) eta eramangarria (*portable meter*).

Aurrez aurreko (*Head-to-head, Power programming, Blunting, Face to face, Competitiva/Programación enfrentada*): telebistako konpetentziak duen tankera eta xede-talde bera duen saioa programatzen denean. Indar-neurketa gogorra izaten da, eta denboran luzatu daiteke. Bietatik irabazle bakarra izaten du amaieran.

Autopromozio (*Promo; Autopromoción; Bandes.-annonces*): telebista-kanalaren zein irrati-estazioaren beraren publizitatea egiten duten mezua.

Autopublizitate: ikus Autopromozio.

Babesletza (*Sponsoring; Patrocinio; Parrainage*): telebistako edo irratiko programa osoak zein horien baitako tartekak erostea eta bertan mezu publizitarioak kokatzea, modu eksklusiboan.

Barne-ekoizpen/barne-produkzio (*Domestic production/In-house production/ Own production; Producción propia; Production propre/interne*): telebista-kanalak zein irrati-emisorak giza baliabide propioz eta ekipamenduaz baliatuz ekoizitakoa. Kontrakoa zehazten ez den kasuetan, koprodukzioak multzo honetan kokatzen dira.

Barter/Bartering: ikus Truke.

Batez besteko audientzia (*Rating; Audiencia media; Audience moyenne*): populazio osoa (edo honen baitan mugaturiko xede-talde bat) kontuan hartuta, kanal/programa zehatz bat ikus-entzun dutenen ehunekoa. Kopuru hori kalkulatzeko, irrati-telebista piztu ez dutenak ere kontuan hartzen dira eta, gainera, ikus-entzuleen batez besteko kontsumoa erabiltzen da erreferentzia gisa. Hau da, denbora-tarte batez (minutua erreferentzia gisa eta hortik gorakoak, eta baita programak, eguneko emisio-ordu guztiak...) telebista ikusi dutenen kopurua, kontuan hartuz zenbat denbora ikusi duten eta minutu desberdinetan gertatzen diren errepikapenak kontabilizatuz. Beste era batera esanda: programa baten minutu bakoitzeko batez besteko ikusle-kopurua.

Behaketa (*Personal observation; Observación; Observation*): Hedabideen kontsumoa gertatzen deneko baldintzetan, ondorioetan eta zergatietan sakontzea helburua izaten duen teknika kualitatiboa. Telebista edo irratiak ikus-entzuten den toki berean eginiko ikerketa-mota da, hori dela eta, teknika zaila eta garestia da kontsumo hori, neurri handi batean ingurune pribatuetan egiten delako eta laborategian eginiko saiakeretan baldintzak ez direlako berberak izaten.

Berezko programazio: zuzeneko zein aurrez grabaturiko programez, publizitatez zein kontinuitate-elementuez osaturiko emisioa. Kontrara, Karrusela deiturikoak, emisio automatizatua erabiliz, amaierarik gabeko publizitatea, kontinuitateko elementuak eta kanalaren identifikagarriak aireratzen ditu.

Bertikal (*Block programming/Blocking/Stacking; Vertical; Verticale*): xede-talde berberarentzako eraikitako telebista programa-multzoa. *Aging the demos* delakoan, bereziki kontuan hartzen da ikus-entzulegoaren adinak gora egiten duela berandutzen den neurrian eta hori kontuan hartu behar dela programen lerraketa erabakitzerakoan.

Bikoiztasun (*Duplication, Duplicación, Répétition/Duplication*): Hedabide zein hauen baitako euskarri bat baino gehiago, ikustea, entzutea edo irakurtzea. Telebista-ikusleen artean, esaterako, irratia ere entzuten duen jendea dagoenez, bi medio horien arteko kontsumo-bikoiztasuna (inter media) dagoela diogu. Modu berean, adibide gisa, denbora-tarte batean irradi-emisora bat baino gehiago entzuten dutenengan ere bikoiztasuna (intra media) gertatzen da. Bikoiztasunak garrantzi handia izan dezake programen xede-taldea definitzerakoan, konpetentziarekiko bereizi nahi izaten denean, migrazioak aztertzen direnean edota produktu bat publikizatzerakoan (inpaktu-bikoizketa eta kanpainaren errentagarritasuna eta eragin-kortasuna zenbatzerakoan).

Bizialdi: (*Life cycle; Ciclo de vida; Cycle de vie du produit*): programa bat aireratzen denetik, eta, besteak beste, audientzian, publizitate-erakargarritasunean, formatuaren edo aurkezlearen freskotasunean, kanalaren zein irradi-emisoraren irudian komenigarritasunean ala arrakastan behera egin eta programazio-taulatik kentzen duten arteko denbora-tartea. Hiru fase izaten ditu: **plazaratzealdia, heldualdia, gainbeheraldia**.

Biztanleria (*Population; Población; Population*): Eremu geopolitiko batean bizi diren pertsonen multzoa. Hedabideen audientzia-ikerketak egiten direnean, biztanleria osoa hartu gabe horren baitako multzo bat besterik ez da kontuan hartua izaten (Médiamétrie-k 4 urtetik gorakoak eta CIESek 14tik gorakoak), eta azpi-multzo horri unibertsoa deitzen zaio.

Blockbuster: Programa bereziak edo izen handiko filmak; sarritan programazio arrunta aldatu egiten da eta autopromozio-kanpainak erabiltzen dira.

Boteprontoan (*Stunting, Variación imprevista/Falsa Contraprogramación*): iragarritako telebista-programazioa aldatu eta audientzia gehiago eskuratzeko eskaintzan oinarritzen da teknika hau. Autopromozio-kanpaina gogorra behar izaten du. Epe laburrera errentagarria izan badaiteke ere, hortik aurrera kalte-ordain handiak ditu. Jendeak gaizki ikusia izateaz gain, programaziogintzari buruzko arautegiak ez ditu errespetatzen.

CAPi (*Computer Assisted Personal Interviewing*): Ordenagailua baliatuz egiten den inkesta pertsonalaren sistema. Erantzundegi itxikoetan, galdetegi osoa eskaintzeaz gain, lagungarri izan daitezkeen argazkiak, kanal-identifikagarriak, markak erakusteko irudiak edo audio-klipak erabiltzeko aukera ematen du. Datu-bilketa eta hustuketa-lana asko errazten eta arintzen du.

CATi (*Computer Assisted Telephone Interviewing*): Ordenagailua baliatuz egiten den telefono bidezko inkesta-sistema. Galdetegia, eta erantzundegi itxikoetan, osoa pantailaratzen duenez, datu bilketa- eta hustuketa-lana asko errazten eta arintzen du.

Day-time: Goizaldeko ordu txikiak kenduta, non telebista kontsumoa ia hutsaren hurrengoa den, eta *prime-time* heldu bitartean gelditzen den ordu-multzoa. Estatu espainiarrean 07:00-20:30, gutxi gorabehera.

Delphi: ikerketa kualitatiboen artean kokatutako metodologia hau gai batean adituak diren pertsonak bildu eta sakoneko elkarrizketaren bidez gaur egungo egoeraz edo etorkizunera begira hartu beharreko erabakiei buruzko informazioa biltzeko erabiltzen da.

Duplex (*Back to back; Duplex; Duplex*): telebistako programa beraren bi atal desberdinak emititu eta bata bestearen arrimuan audientzia-maila mantentzea ala hobetzea du helburu. Estreinako bat eta zaharrago bat tartekatu egiten dira programaren arrakastatik probetxua ateratzeko. Fikziozkoak ez diren saioetan, programaren iraupena luzatzea da erabiltzen den errekurtso merkea, produkzio aldetik erraza eta arrakastatsua lortzeko.

Eduki (*Content; Cotenido; Contenu*): Irrati-telebistan, programa baten zein programazio-taula osoan jorratzen den gaia. Edukian, nola ez, osagarri formalak oso esanguratsuak dira, baina, edukiaz hitz egiten denean, gehienetan gaia da kontuan hartzen dena. Irrati-telebistan, edukiak generoka antolatzen dira: informazioa, kultura, musika, kirolak eta abar.

Egokitzapen-taula (*Aligment Chart; Carta de ajuste*): telebista-hargailuan kanala behar bezala sintonizatuta dagoela eta koloreak, lerroak zein formak ondo erakusten dituela ziurtatzeko erabiltzen den patroia. Sarritan kanalaren izena eta okupatzen duen frekuentzia/kanala adierazten du. Lehen, emisio-orduetatik kanpo pantaila okupatzeko erabiltzen zen ajuste-taula, baina orain kanal gehienetan 24 ordutara zabaldu denez, emisioa gero eta gutxiago erabiltzen da, matxura kasuetan bakarrik.

Ekipamendu (*Equipment; Equipamiento; Équipement*): etxebizitza bakoitzean telebistaren zein irratiaren seinalea jaso eta ikus-entzun ahal izateko erabilgarri dauden azpiegitura tekniko eta tresna elektrikoek multzoa. Kontzeptu honen baitan, telebista- zein irrati-hargailuez gain, antena arrunta eta parabolikoa eta zuntza sartzeko dira, baina baita ere intereneterako koneksioa, DVR, teletestua, teleagintea, Home Cinema, deskodifikagailu digitala eta abar.

Elkarrizketa pertsonal (aurrez aurrekoa) (*Personal interview; Entrevista personal; Interview/Enquete en face à face*): ikerketa, non inkestaturia eta inkestaturia aurrez aurre dauden eta azken horrek galderei emaniko erantzunak jasotzen dituen (paperean ala CAPIIn).

Emisio-ordu: irrati-telebistako emisora airean dagoen ordu-kopurua (egunean, astean, urtean...). Zehaztu beharra dago Ajuste-taula, Karrusela edota bestelako emisio automatizatu bidezkoak kontabilizatuak izan diren ala berezko programazioa bakarrik zenbatua izan den.

Emisio-tarte (*Slot; Emisión*): programa zein emisora baten emisioa noiz hasi eta noiz amaitu eta bien bitartekoaren luzera adierazten duen kontzeptua.

Entzule-kaier (*Listening diary; Cuaderno de escucha; Carnet d'écoute*): Panelkideek bete beharreko kaieran hedabideen eguneroko kontsumoa nolakoa izan den apuntatzen dute eta, ikerketaldiak markatzen duenean, igorri. Azken urteotan, medioen audientzia ikertzeko baino gehiago, produktuen kontsumo-portaeraren berri jakiteko erabilia izaten ari da.

EPG (*Electronic Programme Guide*) (Programazio-gida elektronikoa; *Guía electrónica de programación; TV Guide*): Kanal desberdinetan eskaintzen diren saioak, eta horien gaineko informazio gehigarria, ematen duen zerbitzua. Telebista-gintza digitalaren ondorioz biderkatu den kanal-kopuruan nabigatzeko eta telebista bakoitzaren programazioa ezagutzeko eta, nahi izanez gero, grabatzeko oso baliagarria da.

Errepikapen: ikus Multidifusio.

Eskaintza multikanal (*Multichannel TV; Oferta multicanal; Offre élargie*) Ohiko kanal hertziarrak ez diren beste guztiak izendatzeko erabiltzen den esamoldea. Estatu frantziarrean, kablearen zein satelitearen transmisio-sistemen bidezkoak edota emisio-eremu desberdinekoak, hau da, telebista lokalak, mugaz bestaldekoak eta abar kokatzen dira eskaintza multikanalaren barruan.

Estrategia (*Strategy; Estrategia; Stratégie*): Irrati-telebista batek dituen helburuak, horiek lortzeko bideak eta tresnak, sekuentziak eta epeak osatutako plangintza orokorra. Estrategiaren ikuspegi zabalean kokatzen da bera baino helburu, epe eta tresna zehatzagoak dituen taktika. Ikus Programatika.

Etxekoandre (*Housewife/Housekeeper; Ama de casa; Ménagère*): Etxebizitzaz arduratzen den pertsona izendatzeko erabiltzen den etiketa sozio-demografikoa.

Eurofiction: telebistaz eskaintzen den fikzio europarraren behategia da. 1995ean sortu zen Ikus-entzunezko Europar Behategia delakoak finantzaturik eta Estatu espainiarrak eta frantziarrak, Alemaniak, Erresuma Batuak eta Italiak osatuta. Partaide dituen bost herrialdeen telebistetan pantailaratzen diren barne-ekoizpenaren eta europar jatorria duen fikzioaren jarraipena egiten du.

Euromonitor: 1989an Europako telebistagintzaren egoera eta etorkizuneko joera nagusienak aztertzeko sortu zen ikerketa-behategi iraunkorra da. Estatu espainiarraz eta frantziarrak ez ezik, Italiako, Erresuma Batuko eta Alemaniako ikerketa-taldeen osatzen dute Euromonitor. Helburu bereberekin, AEBn, eta Euro-monitoren lanean ari diren ikertzaile batzuen laguntzarekin, Usamonitor delakoa sortu zen 1997an.

Euskarri (*Support; Soporte; Support*): irrati- eta telebista-hedabideen baitan aurki daitezkeen kanal eta emisorak.

Eztabaida-talde (*Discussion/Focus group; Grupo de discusión; Reunion/Entretien de group*): ikertu nahi den gai baten inguruan hitz egiteko jende-multzo bat biltzea dago ikuspegi kualitatiboa duen ikerketa-mota honen oinarrian. Berriketal-diaren parte-hartzaile desberdinen iritziak mahaigaineratu eta gaiaren alderdi desberdinak ikutuko direla baino ez du zihurtatu behar izaten moderatzaileak.

Folletoi: ikus Telenobela.

Formatu (*Format: Formato; Format*): Irrati-telebistan, programa baten zein programazio-taula osoaren egituraketa formala. Formatuaren definizioan edukiak zeresana duen arren, garrantzi gehiago edukitzen dute, besteak beste, aurkezpenak, iraupenak eta ekoizpen-motak; barne-itxuraketa formalak, alegia.

Formatu itxiko irratigintza: irratigintza espezializatuaren baitan, edukiaren egituraketan oinarritzen direnak bere eskaintzari nortasun propioa emateko. Formatu itxiko irratietan (musika edo informazioa izaten dira gai nagusizat hartuta-koak) eskaintzen den programazio-patroia maiztasun handiz errepikatzen da, ordu erdiro ala ordubetero. Errepikakorra den edukia eskaintzeko eredu horri irratiformula deitzen zaio.

Gag: txiste edo kontakizun barregarria; sarritan antzespen laburra izaten du osagarri.

Gaininpresio (*Overprinting; Sobreimpresión; Surimpressione*): telebista-pantailaren zatiren batean marka, produktu zein zerbitzu bat iragartzen duen publizitate-mota. Kirol-saioetan erabili izan da gehien, baina gero eta gehiago dira publizitate-mota hau erabiltzen duten programak eta generoak.

Galdeketa polietapiko: Inkestaldiaren lagina zatitu eta inkesta-multzo bakoitza momentu desberdin batean burutzen dena. EGMk, esaterako, urtean egiten dituen 45.000 inguru inkesta hiru multzo-tan banatu eta otsaila, apirila eta urria aldera egiten du zati bakoitza, urtearen ikuspegi osatuago eta orekatuagoa lortuz.

Galdetegi (*Questionnaire; Cuestionario; Questionnaire*): lortu nahi den informazioa eskuratzeko galdera-zerrenda egituratua. Idatziz zein hitzez aurkez daitekeen galdetegia, norberak bete beharrekoa (*self-completion; autoadministrado*) ala inkestatzaileak luzaturikoa (*interviewer administered*) izan daiteke.

Game show: abilezia, erresistentzia, arintasuna eta horrelako berezitasun fisikoetan oinarritutako lehiaketa-programa. Norgehiagoka jakiturian edota abilezia mentalean oinarritzen denean, *Quiz show* deitzen zaio.

Gela interaktibo (*Interactive room; Sala interactiva; Système interactif*): Ikus-entzunezko produktuak testatzeko erabiltzen den aretoa da. 50 bat pertsonentzako lekua izaten du eta, jesarleku bakoitzean, momentuoro eskala baten arabera produktua (spota, filma, telesaiala, promoa...) ebaluatzeko modua eskaintzen zaio

inkestatuari, *joystick* baten bidez. Sarritan, teknika kuantitatibo honi eztabaida-taldearena gehitzen zaio, bien arteko emaitzak oparagoak direlakoan. Konbinazio horren bidez, jendearen erreakzioa, balorazioa eta erakarpen-maila jakiteaz gain, zergatiak jaso daitezke.

Gizarte-irradi (*Community radio; Radio comunitaria/asociativa; Radio associative*): Berez, jabetza pribatukoak izanik ere, elkarteak, mugimendu sozialak edo kultura-taldeak izaten dituen sustatzaile, ez dute beren helburuen artean izaten diru-etekinik egitea (batzuetan publizitatea erabiltzen dute), barne-antolaketa irekiak izaten dira, eta helburu sozialak, kulturalak edota parte-hartzaileak izaten dituzte.

GRP (Gross Rating Point): insertzio-kopuru baten bidez kanpainak lortzen duen kontaktu-kopurua, ehunekotan. Kanpainaren presioa adierazten du.

Hamaka (*Hammocking; Hamaca; Hamac*): telebistako programazio-taulan, eguneko ordu-multzo desberdinetan, baita *prime-time*an ere, erabat sustraituak dauden eta arrakastatsuak diren bi programen artean jaio berri bat edota audientzia aldetik makalagoa den bat kokatzea da. Indartsuen artean egoteak audientzia-fluxua errazten du.

Harpidedun (*Subscribed; Abonado; Abonné*). Ikus Harpidetza.

Harpidetza (*Subscription; Abono; Abonnement*): telebista-kanalak, banaka ala multzoan, edo bestelako ikus-entzunezko zerbitzuak jaso ahal izateko ordaindu beharreko diru-kopurua. Satellite eta kable bidezko telebistari aplikatzen zaion kontzeptua da. Hori bai, kontuan hartu harpidedunak diren guztiak sarbidea dutela, baina ez alderantziz. Badira sarbidea etxebizitzaraino duten biztanleak baina ez direnak harpidetu eta, beraz, ezin izango dutenak kable/satelite bidezko seinalerik ikusi.

Home Media Center: etxebizitzara heltzen diren ikus-entzunezko seinale desberdinak kudeatzeko balio duen tramankulua da. Konbergentzia teknologikoaren oinordea izanik, internet, ordenagailu, satelite, kable eta lurreko telebistagintza bateratzen dituen tresna elektrikoa da. *Set-top box* garatu bat da.

Horizontal (*Stripping/Across-the-board; Tiral/Horizontal; Horizontale*): Programa bat ikustea ohitura bilakatu nahi duen telebistako programazio-teknika. Egutegi berean, programak kokatuz ezaguna egiten da, nolabaiteko hitzordu kolektiboa bilakatzuz. Epe luzera edo ertainera emaitza hobeak ematen du programazio horizontalak.

Hot clock (Erloju-diagrama): Formatu itxiko irratigintzan erabiltzen den emisio-formula. Ordu erdi ala ordubeteko emisio-tartea errepresentatzen duen diagraman, eduki bakoitzak betetzen dituen minutuak zehazten ditu, gero, egun osoan patroia berbera behin eta berriro errepikatuz.

Ikerketa monografiko, multimedia eta medien produktu-ikerketa (*media, multimedia eta media-product; estudios monográficos, multimedia y media-producto; monomédia, multi-média/plurimédia, media-produit*): audientzia-ikerketa egiterakoan, hedabide bakarra (edo/eta bere baitako euskarri desberdinak), bat baino gehiago edo produktuen eta hedabideen arteko erlazioa helburu eta galdegai modura hartzea erabaki behar izaten da, horrela zedarritzatzen baita ikerketaren eremua.

Ikerkuntza kointzidental (*Coincidental study; Investigación coincidental; Enquête coïncidentale*): irratia ala telebista ikus-entzuten den momentu berean eginiko ikerketaldia da. Telefono bidezko galdeketa eta audimetroa erabiltzen dituztenak dira arruntenak; izan ere, behaketa eta gela interaktiboa erabiltzen dutenak askoz ere garestiagoak eta zailagoak dira egiteko.

Ikerkuntza prediktibo (*Predictive research; Investigación predictiva*): medio baten ikus-entzuleria nolakoa eta zenbatekoa izango den alde zuretik jakin nahi duen metodologia da. Sarritan, inkestatuen erantzunetan oinarritzeaz gain, datu historikoetan eta bestelako aldagai kulturalak, ekonomikoak eta sozialak kontuan hartuko dituzten programa matematikoak erabiltzen dira.

Ikus-entzuleria: ikus Audientzia

Infosys TV: Sofres AM-ek audimetriaren bidez lorturiko datuen kudeaketa egiteko daukan programa informatikoa. Médiamétrie-renak Téléreport izena du.

Infotainment: *Information* eta *Entertainment* hitzen nahasketatik sorturiko kontzeptua, informazioaren tratamendu arinagoa, azalekoagoa eta entretenigarriak diren saioetatik hurbilagoa dagoena adierazten du.

Inkesta (*Interview; Encuesta; Enquête*): inkestatuaren eta inkestatzailearen arteko informazio-trukaketa da. Galdetegia luzatzeko sistemarik arruntenak dira: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, postala eta *on-linea*.

Iragarki (*Advertisement/Advert; Anuncio; Message publicitaire*): edozein produkturen zein zerbitzuren kontsumoa areagotu nahian plazaratutako mezua. Iragarki-mota arruntenak dira: spota, publerreportajea, babesletza eta gaininpresioa.

Iragarkigintza (*Advertising; Publicidad; Publicité*): produktuen zein zerbitzuen kontsumoa areagotu nahiaren zeregina.

Iragarle (*Annonceur/Advertiser; Anunciante; Annonceur*): produktu edo zerbitzu baten publizitatea egiteko mezu bat edo kanpaina oso bat antolatu, egin edota hedabideen bidez zabaltzeko agindua ematen duen pertsona edota enpresa.

Irekian (*Free-to-view/Free-to-air; En abierto/Gratuito; En clair/Gratuit*): ikus-entzuleari doan eskaintzen zaizkion irrati- edo telebista-kanalak zein beste-lako zerbitzuak. Ordainpeko irratiaren edo telebistaren kontrakoa.

Irispen-indize (*Penetration; Penetración; Pénétration*): Kablea etxeko ateraino jarria dutenen (ikus sarbidedun) eta harpidetza-kontratua sinatu dutenen (ikus harpidedun) arteko erlazioa adierazten duen koefizientea da.

Irrati periferikoak (*Stations périphériques*): Estatu frantziarrean, irratigintzaren monopolioak iraun zuen bitartean, inguruko herrialdeetatik (Alemania, Monako eta Andorra) aritzen ziren irrati komertzialak. Besteak beste, Europe 1, RTL, RMC eta Sud Radio.

Irrati-formula: formatu itxiko irratiek edukien egituraketa, errealizazioa eta aurkezpen-estiloa oso definitua dute. Askotan ordubeteko eredu (*hot clock*) erabiltzen dute, non edukiak eta iraupenak erabakitzen dituzten, eta, gero, eredu hori eguneko ordu guztietan errepikatzen dute. Oso ezagunak dira musikari edo informazioari emanak direnak.

Irratigintza espezializatu (*Generic radio, Radio especializada; Radio thématique/spécifique*): Orotariko irratigintzaren kontrara, espezializatua den honetan, xede-talde zehatza bilatzen da, eta segmentu sozial horri zuzenduriko eduki zehatzak eskaintzen dira. Irrati-programazio honetan bi azpiero daude: tematikoa eta irrati-formatua.

Irratigintza tematiko (*Thematic radio, Radio temática; Radio thématique*): Irratigintza espezializatuaren barruan gaia duena elementu definigarri. Musika, informazioa, ekonomia edota kirola monografikoki lantzen duten irrati hauetan, programa-mota desberdinak jorratzen dituzte (elkarrizketak, erreportajeak, musika, albistegiak...), baina beti ere esparru tematiko berberaren barruan.

Jarraikitasunezko programazio: Orotariko irratigintzaren programazioari dagokion azpiero honek, askotan, gaurkotasan handiko gai bat ala gertakari bat hartzen du ardatz modura, eta bere jarduna horren inguruan artikulatzen. Gertakari hori garatzeko, irrati-genero desberdinak jorratzen ditu, hala nola, elkarrizketak, entzuleen deiak, erreportajeak, albistegiak, etab.

Josia (*Seamlessness; Encadenamiento*): Aurreko eta atzeko telebista-programen artean tarterik ez sortzea eta, beraz, jendeari kanalez aldatzeko aukerarik ez ematea lantzen duen teknika. Fluxua bere horretan garraiatzeko asmoa duen errekurso honek publizitate-forma ez hain konbentzionalak behar izaten ditu bere inguruan.

Kable (*cable; cable; câble*): telebista, irrati zein bestelako telekomunikazio-zerbitzuak garraiatzeko erabiltzen den euskarria. Bi motatako kableak daude: koaxiala eta zuntz optikoa.

Kabletu (*Cable passed; Cableado/Pasado; Cerclé/Raccordable/Connecté*): kable-instalazioa jarrita duten etxebizitzak. Sarbidea duten horietatik batzuk harpidetu egiten dira eta kable bidezko zerbitzuak jasotzen hasten dira. Sarbidedunen eta harpidedunen arteko erlazioak kablearen hedadura adierazten du.

Kanal (*channel; canal; canal*): kanala eta katea, hizkera arruntean sinonimo gisa erabiltzen diren arren, liburu honi dagokionez, esangura desberdina dute. Katea telebista-estazio gisa ulertuko dugu (France Télévision edo Euskal Telebista), eta kanala aireratzen duen programazio bakoitza (France 2 edo ETB1, ETB Sat...).

Kanal tematiko (*Thematic channel; Canal temático; Chaîne thématique*): genero zehatz baten inguruan eraturako telebista-kanala; gehienak Fikzioa, Kirola eta Informazioa hartzen dute ardatz modura.

Kanon (*Licence-fee; Canon/Tasa; Redevance*): herrialde batzuetan, Estatu frantziarrear kasu, telebista-hargailua edukitzeagatik urtero ordaindu beharreko zerga.

Kanpin-denda (*Tent poling; Tienda de campaña*): telebistako programa arrakatsuek hasi aurretik eta amaitu eta gero ere audientzia erakartzeko duten ahalmenetik probetxua ateratzea, berriak edota hainbesteko audientzia ez duten saioen onerako.

Kanpo-ekoizpen/Kanpo-produkzio (*Acquired production/Acquisition; Producción ajena; Production extérieure*): telebista-kanalak zein irrati-emisorak ekoiztetxe bati agindutakoa edota kanpoan erositako produkzioa.

Karrusel: emisio automatizatua erabiliz, amaierarik gabeko publizitatea, kontinuitateko elementuak eta kanalaren identifikagarriak aireratzen ditu, behin eta berriro. Berezko programazioa baino elementu gutxiago baliatzen ditu, beti aurrez grabaturikoak, eta, hainbat kanaletan, emisioa 24 orduz zabaltzeko errekurtsio erraz gisa erabiltzen da.

Kate (*chain/network; cadena; chaîne*): katea eta kanala, kaleko hizkeran sinonimizatuta dauden arren, liburu honetan bereiziko ditugu. Katea telebista-estazio gisa ulertuko dugu (France Télévision edo Euskal Telebista), eta kanala aireratzen duen programazio bakoitza (France 2 edo ETB1, ETB Sat...). AEBko *network*-a katearen antolaketa-mota bat da. Irratiari dagokionez ere, emisora desberdinak biltzen dituen eraketa-mota da. Irrati-estazioak modu desberdinetan egon daitezke kateaturik, programazio bera emitituz, akzioak erosiz eta jabetza osoa edukiz, besteak beste.

Killer format: arrakasta gaindiezina lortu duen programa/formatua. Konpetentzia erreakzio-tresnarik gabe uzten duena audientzia-kopuruan, itzal sozialean, gainontzeko programetako edukietan eta programazio-taularen eraketan eraginez.

Kobertura (*Reach; Cobertura; Couverture*): denbora-tarte batean, populazioaren zenbatek telebista edo irratia gutxieneko minutu-kopuru batez ikus-entzun duen adierazten du.

Kodifikatu, programa/emanaldi (*Encrypted programme; Programa codificado; programme cryptée*): ikusia izateko deskodifikagailua beharrezkoa duen telebista-kanala edo emanaldia.

Kontrara (*Counterprogramming, A la contra/Contraprogramación; Contre-programation*): telebistako kompetentziak lortzen ez duen audientzia helburutzat hartzen duen teknika. Eskaintza berria alternatiboa izan behar du gaiari, tratamenduari edota xede-talde gisa duenari dagokienez.

Kuota (*Share; Cuota; Part de marché/Part d'audience/Part de volume d'écoute*): irratia edo telebista kontsumitu dutenen artean kanal/programa bakoitza ikus-entzun dutenen zenbatekoa, ehunekotan.

Lagin (*Sample; Muestra; Échantillon*): unibertsoaren azpimultzoa eta hark dituen osagarri sozio-demografikoetan edo portaeretan proportzionatua. Ikerketa soziologikoan, eta bereziki audientzia-ikerketan, beharrezkoa da unibertso osoarentzako estimazioak errazago eta merkeago lortzeko orduan.

Late night show: EABn sorturiko programa-mota honetan magazinarekin, elkarrizketa-saioekin, eta informazioarekin zerikusia daukaten edukiak konbinatzen dira modu ikusgarrian. *Late night* delako ordu-multzoa, gaueko hamabiak eta ordubi t'erdia bitartekoa da Estatu espainiarrean.

Library (*Programa-bilduma*): telebista-kanal batek emisio-eskubide osoz dituen programen bilduma.

Lokomotora (*Lead-in; Punta de lanza*): telebistako programazioan dauden ordu-multzo garrantzitsuenetan programa indartsuenak lekutzea jendea erakarriz eta hortik aurrera audientzia-fluxuaren gainontzeko teknikak erabiltzea.

Majors: AEBko, eta neurri handian Hollywood-eko, fikzio-ekoiztetxe eta banatzaile erraldoiak. Alegia: MGM/UA, 20th Century Fox, Sony Pictures, Xarner Bros, Paramount Pictures, Universal eta Disney.

MHP (*Multimedia Home Platform*): Europar Batasunak garatu duen telebista deskodifikatzaile konpatible sistema estandarra; DVB industria-foroak bultzatua.

Mikrosaio (*Micro programa/Micro espacio; Programme court*): programa oso laburra (edo beste baten barruko tarte txiki bat), gehienetan informazioarekin, eguraldiarekin, karteldegiaekin zerikusia daukaten edukiak eskaintzen duena. Sarritan publizitatea sartzeko modu bat izaten da.

Mikrosaio (*Micro programa/Micro espacio; Programme court*): programa oso laburra (edo beste baten barruko tarte txiki bat), gehienetan informazioarekin, eguraldiarekin, karteldegiaekin zerikusia daukaten edukiak eskaintzen dituena. Sarritan publizitatea sartzeko modu bat izaten da.

Miszelanea (*Miscelaneous; Miscelánea; Miscellanées*): Fikzioa, Informazioa, Kirola edota Lehiaketak bezalako genero-sailkapen errazetik kanpo gelditzen zen programa-multzoa izendatzeko etiketa. Sofres AMk magazinak, umorea, prentsa arrosa, zirkua eta abar bertan sailkatzen ditu. Gainontzeko generoetan kokatu ezin dabilzan programa/formatu berriak kokatzeko balio izaten du Miszelaneak.

Mosaiko (*Mosaic; Mosaico; Mosaique*): Irratigintzaren lehen urteetako programazio-eredu honek irratsaioak bata bestearen segidan jartzen ditu, programen arteko loturari edota batasunari erreparatu gabe. Luzeran, edukian eta tratamenduan oso desberdinak diren irratsaioez osaturiko programazio-eredu hau orotariko irratigintzaren barruan kokatzen da.

Multidifusio (*Multidifusion/Rerun; Multidifusión; Multidiffusion*): telebista-zein irrati-programa bera ordu ala egun gutxiko epean birremititzea. Errepikapena, orokorrean, emisio-ordu desberdinean ematen da, kanal zein irrati-emisoraren beste audientzia-zatietara heldu nahian.

Multiplex (*Multiplex, Canal múltiple; Multiplex*): lau eta sei telebista digitalen seinalea sartzeko aukera eskaintzen duen irrati-frekuentziako kanala. Lehen, telebista analogiko bakarra zegoen frekuentzian; gaur egun, *mux* edo kanal multiplea deiturikoek, konpresio-tekniken bidez, laukoiztu egiten dute telebista-kanalen kopurua, eta bestelako zerbitzu digitalak (datuak, internet) sartzeko aukera ematen dute.

Multzokako irratigintza (*Block format; de Bloques*): Orotariko programazio-ereduen barruan kokatzen den Multzakako edo Kontainer izenekoa eduki bakarra, iraupen mugatua eta aurreko eta atzeko programekin zerikusirik ez duten programen kontrakoa da. Multzokako irratigintzan paradigmatikoa den magazinak esatari orokorraren eta irratsaioaren indentifikagarri bakarraren zuzendaritzapean osatzen den makroaioaz identifika daiteke, non oso desberdinak izan daitezkeen edukiak bateratu eta nolabaiteko homogenotasun programatiboa lortzen duten. Esatari-izar horiek eta beren kontainerrak hiruzpalau orduko programazio-tartea bete dezakete goizez, bazkalostez ala gauez.

Network: AEBko telebista-kanal (*owned and operated stations; O&Os*) zein irrati-estazio independenteez (*affiliates*) katean aritzeko (besteak beste, saioak finantzatu, ekoitzi, programatu eta aldi berean emititu ahal izateko) antolaketa-sistema. ABC, NBC, CBS, PBS edota HBO dira *network* erraldoi horietariko batzuk. Estatu espainiarrari dagokionez, Localia Televisión *network* kontzeptutik hurbilen egon daitekeen antolaketa-sistema da.

Norberak bete beharreko metodo (*Self-completion diary; Metodo Autoadministrado; questionnaire auto-administré*): ikus Entzule-kaiera.

NVOD (*Near Video On Demand*) (*Ia eskatu ahalako bideoa; Video casi bajo demanda; Quasi-vidéo à la demande*): Bideo bat zein ordutegian ikus-entzungo duen erabakitzeko, bezeroari aukera ematen dion zerbitzua. Telebista-kanal desberdinen bidez, eta ordu laurdeneko/erdiko aldean emititzen hasiz, programa jakin berbera (filma, dokumentala edo dena delakoa) nahi denean, ikus-entzuteko modua eskaintzen dizu, normalean diru truk. Video On Demand delakotik hurbilen dagoen zerbitzua da.

Offre élargie: ikus Eskaintza multikanala.

Olatu (*Wave/Sweep; Ola; Vague*): inkesta bidezko kanpo-lana egiten duten ikerketa batzuek lagina bizpahiru zati handitan banatu eta urtean zehar zabaltzen dute, inkestaldi polietapikoa deiturikoa erabiliz. Zatikako inkestaldi bakoitzaren ostean, dagokion datu-emaitzari olatua deitzen zaio. EGMk hiru olatu plazaratzen ditu urtean zehar eta CIESek bi.

Ordainpeko programa (*Pay Per View; Pago Por Visión/Pago por programa; Paiment à la séance*): Diru truk ikus-entzun daitezkeen programak; normalean zuzeneko ekitaldiak (kirolak, lehiaketak, gertera bereziak...) edota filmak izaten dira eskaintzen diren programa-generoak.

Ordainpeko telebistagintza (*Pay Television; Televisión de pago; Télévision à péage*): Telebista jaso ahal izateko ordaintzea beharrezkoa duten kate zein ikus-entzunezko zerbitzuen izen generikoa. Ordainpekoen artean daude, besteak beste, zuntz zein satelite bidezkoak, baina, baita ere, *Pay per View, Near Video On Demand* eta *Video On Demand* delako produktu zehatzagoak.

Ordu-multzo (*Daypart; Franja/Banda/Bloque horario; Tranche horaire*): programazio-eskaintzaren eta kontsumoaren arabera eguna antolatzeke definitzen diren zatiak; Estatu espainiarrean, TNSek: goiza (02:30-14:00), bazkalostea (14:00-17:00), arratsaldea (17:00-20:30), gaua (*prime-time*: 20:30-24:00) eta ordu txikiak (*late night*: 24:00-26:30).

Ordu-tarte (*Slot; Espacio horario*): telebista- ala irrati-programa batek programazio-taulan betetzen duen zatia.

Orotariko irratigintza (*Talk radio/Talk&News radio; Radio generalista; Radio généraliste*): Genero eta eduki aldetik eskaintza zabala duen irrati-eredu honek populazioaren zatirik ahalik eta handienetara heltzea du xede. Irratigintza konbentzionala ere deituriko honek bere baitan azpiero batzuk ditu: mosaikoa, multzokakoa eta kontinuitatezkoa.

Orotariko kanal (*Generalist channel; Canal generalista/convencional; Chaîne généraliste*): Konbentzionala ere deitu izandako kanal-mota honek genero desberdinetako programak kokatzen ditu bere emisio-orduetan.

Panel: audientzia-ikerketa jarraitua egiteko sortzen den jende-multzo bat, zeinari buruz medio-kontsumoaren gaineko informazio-bilketa egingo den maiztasun handiz. Batzuetan, panelkideak idatziz erantzun behar izaten dio galdetegiari, eta bestetan, aldiz, bere kontsumo-portaera modu automatizatuan jasoko da audimetroa etxean edo soinean eramanez.

Pay Per View (PPV): ikus Ordainpeko programa

Pay Television: ikus Ordainpeko telebistagintza

People Meter: telebistan zer sintonizatzen zen kontrolatzeaz gain, aurrez aurre zituen ikus-entzuleei buruzko informazioa jasotzen eta plazaratzen zuen audimetria-sistema garatuagoa.

Picture Matching: telebistagintza digitalaren garaian, kanal bakoitzaren audientzia neurtzeko audimetrian erabiltzen den teknika. Telebista-kanal bakoitzak eskaintzen dituen irudien —kuadro baten puntu gutxi batzuen lagina erabiliz— eta azterketa-eremu horretan ikus daitezkeen kanal guztiak jasotzen dituen kontrol-gelaren arteko alderaketa egiten duen teknika da. Etxebizitzakoak eta kontrol-gelako irudiak ezkontzen direla ala ez ziurtatzen duen audimetria-sistema hau oso erabilgarria da digitalizazioaren eraginez, edota telebistaren seinalearen transmisio-euskarriak (zuntza, satelitea...) asko ugaritu diren tokietan.

Plataforma (*Distribution platform; Plataforma; Bouquet*): izen komertziala, beraz, telebista-kanalen multzo handi bat eskaintzen duen operadorea. Orain arte, gehienbat, Canal Satelite Digital, Via Digital, TPS edota Canal Satellite operadoreak izendatzeko erabili bada ere, aplikagarria da baita ere, kable bidez zein TDTz zabaltzen diren kanal nahiz bestelako zerbitzuen eskaintza-multzoetan.

Populazio: ikus Biztanleria

Portable Meter (*Audimetro eramangarria*): soinean eramateko moduko tramankuluak aplikatzen dituen audimetria. Azken denboraldian, erloju (*radiowatch* eta radiocontrol modelook) zein kreditu-txartel itxura (PPM) duten audimetro eramangarriak erabiltzen hasi dira, telebistaz gain irratiaren ikus-entzuleen kopurua eta izaera sozio-demografikoa nolakoa den jakiteko.

Prentsa arrosa (*Gossip TV/Chata TV; Prensa rosa/del corazón*): famatuen intimitateari edo behintzat bizitza sozialari buruzko saiokak.

Prime-time (Urrezko orduak/ordutegia): audientzia-kopuru handiena duen ordu-multzoa, Estatu espainiarrean 20:30-24:00 eta frantziarrean 19:00-22:00. Euskal Herrian *prime-timea* bien artekoan kokatzen dela dirudi, 20:00-23:30 bitartekoan.

Programa (*Programme; Programa; Programme*): Irratien edo telebisten emanaldietan identifika daitezkeen eduki-unitate autonomo eta definitu bakoitza. Eduki, tratamendu, luzera zein osagarri tekniko-espresiboz oso desberdinak izan daitezke programak.

Bestalde, digitalizazioaren garaian, beste esangura bat ere hartu du programa hitzak, lehengo “telebista-kanalarena” edo “irratiaarena”. Jakina denez, teknologia analogokioaren aroan, irrati ala telebista baten “nortasun-agiria” eta izaera betetzen zuen frekuentziak ematen zion; gaur egun, aldiz, frekuentzia horietan emanaldi bat baino gehiago koka daitezkeenez, eskaintzaren atal horietariko bakoitzari programa izena ematen zaio.

Programatika: telebista zein irrati baten helburuak, epeak, baliabideak eta pausoak definitzen duen egitasmo iraunkorra; estrategia hitzaren sinonimo gisa uler daiteke. Kontrara, programatiba, epe laburreko ikuspegiak programen kudeaketa edota programazio-taulen eraikuntza definitzen duen plangintza taktikoagoa eta, beraz, egoeren arabera moldakorra. Ikus Estrategia.

Programazio-taula (*Programme schedule; Parrilla/Rejilla de programación; Grille de programmes*): irrati-telebistako programa bakoitza zein egunetan eta ordutan aireratzten den erakusten duen plantila. Denboraldi osorako eredu bera mantentzen den arren, astekako programazio-taula da kontuan hartzen dena.

Publierreportaje (*Infomercial; Publirepotaje*): produktuaren zein zerbitzuaren kontsumora deitzea baino areago, beraren gaineko informazioa zabaltzea helburu modura duen iragarki-mota. Erreportaje baten itxura izaten du eta bi mintutik gorako iraupena.

PVR (*Personal Video Recorder*) eta baita ere *Personal TV Recorder* (PTR) eta *Personal Digital Recorder* (PDR) izenekoak, bideo-grabagailu sofistikuak dira, eta telebistara heltzen diren seinale desberdinak (satelitea, zuntza, interneta eta lurrekoak) disko gogor batean eta kalitate digitalez grabatzeko aukera eskaintzen dute. Ikus *Home Media Center*.

Quiz show: jakiturian, memorian edo logikan oinarritutako erantzunak emanez edo mentalki kalkuluak ahalik eta arinen eginez burututako lehiaketa-programa. Norgehiagoka abilezia fisikoetan oinarritzen denean, Game show deitzen zaio.

Rating: ikus Batez besteko audientzia.

Régie publicitaire (eskusibista): Euskarri baten edo gehiagoren publizitatea komertzializa-tzen duen enpresa. Publizitate euskarriaren barneko sail gisa eratuta ala ester-nalizatua egon daiteke.

Representatives/Reps: *network*-ena baino emisio-eremu txikiagoa duten kanalen publizitate-denbora AEB osoan komertzializatzear arduratzen diren profesionalak. Ordezkarri komertzial edo *Reps* delakoek iragarle handien kanpaina lokalak bideratzeko balio izaten dute eta, beraz, kanal txikientzako AEB osora zabalduko den ordezkaritza merkeagoa edukitzeko modua eskaini. Gainera, askotan, kanalentzako audientzia-, programazio-, marketing- eta komertzializazio-lanetan aholkulari-lana egiten dute.

Sarbidedun (*Passed; Pasado/Conectado; Connecté/Cerclé/Racordable*). Kablearen kasurako, etxeraino kablea jarri eta gero, hala nahi izanez gero, harpidetu eta telebista, telefonoa zein bestelako telekomunikazio-zerbitzuak jasotzeko prest dagoena. Sarbidedunen eta harpidedunen arteko erlazioari hedadura deitzen zaio.

Sketch: antzezlan, musika-pieza edo irrati-telebistaren saio baten zatitxo bat, sarritan komikoa edo satirikoa.

Set Meter: lehen belaunaldiko audimetro honek soil-soilik etxebizitzaren audientzia neurtzen zuen. *Set meter*-ak ez zuen bertan ziren pertsoneri buruzko informazio sozio-demografikorik eskaintzen.

Set-top box: Transmisio-sistema desberdinen bidez zetozen telebista-seinaleak jaso eta etxebizitzan ikusi ahal izateko beharrezkoak ziren kodeketa-lanak egiten zituen gailua izatetik, multimedia terminalaren papera jokatzeko ari da gero eta gehiago, eta interneterako koneksioa, programak grabatzeko disko gogorra (PVR) eta bestelako zerbitzuak eskaintzen ditu. Beraz, *Set-top box* hutsa izatetik *Home Media Center* izateko bidean da.

Simulcast: Teknologia desberdina erabiliz, aldi berean eginiko emisioa. Adibide modura, irratiaren kasuan, programazioa maiztasun modulatuan eta uhin ertainean edota uhinez eta internetez zabaltzea. Telebistan, seinalea analogikoan eta digitalean aldi berean aireratzea, esaterako.

Sitcom: ikus Telekomedia.

Soap opera: ikus Telenobela/Folletoia

Spot (*Spot; Anuncio/Mensaje publicitario; Spot/Message publicitaire*): Telebistako iragarki-mota arruntena, 20" eta 30" bitartekoa. Programen hasieran eta amaieran edota horien baitako etenetan kokatuak izaten dira. Banaka edota iragarki-multzoak osatuz.

Syndication: AEBko merkatu txikietan aritzen diren telebista-kanalen ala irrati-estazioen arteko akordioa, programak (*syndicated programme*) erosteko eta emititzeko. Sindikazioa kanal independenteek erabili izan duten errekurtsoa den arren, aspaldi honetan, afiliatuak deituriko kanalek ere erosketa- edo koproduzio-modu hau erabiltzen dute. *Syndicator*-a da banan-banakako harreman honetarako programaren eskubideen jabea. Estatu espainiarrari dagokionez, Forta delakoa litzateke sindikazio kontzeptutik hurbilen egon daitekeen antolaketa-sistema.

Taktika (*Tactic; Táctica; Tactique*): Irrati-telebistak definituak dituen ikuspegi orokorren barruan kokatuta, helburu zehatzagoak, epe laburragoak eta tresna eta politika mugatuagoak dituen egitasmoa.

Teknika (*Technique; Técnica; Technique*): Irrati-telebistarako programazio-taulak eraikitzerakoan erabiltzen diren errekurtso praktikoak dira. *Scheduling strategies* deituriko hauek, besteak beste, audientzia erakartzeko, fidelitasuna areagotzeko, konpetentziaren kontra jotzeko, eta abarretarako baliagarriak izaten dira. Horien artean daude ingelesezko *hammoncking, stripping, counterprogramming, checkerboarding, head-to-head* eta abar.

Teleaginte (*Remote control; Mando a distancia; Télécommande*): Telebista-kanala urrutitik aldatzeko —edota bolumena, kolorea eta abar ajustatzeko— erabil daitekeen dispositiboa. Gainera, teleagintearen bidez aktiba daitezke bideoa, DVRa edo etxebizitzan egon daitezkeen bestelakoak.

Telefilm (*TV movie; Telefilm; Téléfilm/Unitaires*): jatorrian telebistarako ekoiztako filmak dira. Aurrekontuz mugatuagoak, gidoia benetako gertaeretan eta gaurkotasun handikoetan oinarritua, antzezle ezezagunagoak erakutsiz, iraupen txikiagokoak, errealizazio propioa eta komertzializazioa bera telebistaren eremura mugatzen ditu.

Telekomedia (*Situation Comedy/Sitcom; Comedia de situación/Telecomedia; Télécomédie*): Egoera txokanteak eta elkarrizketa barregarriak oinarrian dituzten komedia laburrak. Aktore gutxi batzuk eta bizpahiru eszenatokietan lekutatutako telebista-saio hauek ordu erdi ingurukoak izaten dira eta, sarritan, urte luzez mantentzen dira programazio-tauletan.

Telenobela/Folletoi (*Soap opera; Telenovela/Culebrón; Feuilleton*): Telebistarako fikzio seriatua, emisio-maiztasun altukoa eta kapitulu asko dituen. AEBko hitza bada ere —garbikari-saltzaileek babesten zituzten programak izendatzeko—, gure artean folletoi edo telenobela arrakastatsuenak latinoamerikarrak izan dira.

Téléreport: Médiamétrie-k audimetriaren bidez lorturiko datuen kudeaketa egiteko daukan programa informatikoa. Sofres AM-renak Infosys TV izena du.

Telesail (*Serie; Teleserie; Télésérie*): fikziozko produktu seriatua, ordu beteko emanaldia osatzeko jaioa (publizitatea barne), platoan zein kanpoan eginiko irudiez kontatzen den istorioa. Urte luzez AEBko produktuak nagusitu badira ere, azken denboraldian tokian tokiko serieak agertzen hasi dira, eta ikus-entzuleen erantzun ona jasoz, gainera. **Episodic series**: kapitulu bakoitzean kontatzen den istorioa hasi eta amaitu egiten duen telesaila. Aldiz, **sequential series** delakoetan epilogo moduko batez hurrengoko kapitulurako utziko du elementu deigarriren baten erresoluzioa. **Continuous serials** delakoetan beren artean kateatuta eta amaierarik ez duten istorioak kontatzen dira. Azkenik, **episodic serial** deiturikoetan kapitulu-multzo baten bueltan istorioaren parte bati amaiera ematen zaio.

Truke (*Barter*): telebista-kanalaren eta programa hornitzailearen (ekoiztetxea, iragarlea zein programa baten emisio-eskubideak dituen agentzia —*syndicate*—) arteko harreman-akordioa. Lehenak emisiorako tartea eta publikitatea kokatzeko (beretzako zein erosten duenarentzako) denbora eskaintzen dio eta, bigarrenak, trukean, aireratzeko moduan dagoen programa eskaintzen dio.

Unibertso (*Universe; Universo; Univers*): ikus Biztanleria.

Urtaro (*Season; Estación; Saison*): Ikasturtea antolatzeko modu bat da, “telebistako urtaro” horietariko bakoitzak berezitasunak dituelako eta egokitu beharra duelako telebistagintzaren produkzio-, komertzializazio- eta kontsumo-portaeretara.

AEBn oso erabilia izan ohi da. Telebista-ikasturteak hainbat zati izaten ditu: irailan hasi eta gabonak arteko hamairu asteak, Aste Santura artekoak, handik aurrera beste 13 eta udako hiru hilabeteak izaten ditu bere baitan.

Urte metatu (*Año movil; Cumul Annuel*): olatuka egin eta plazaratutako ikerketetan urte oso bateko ikuspegia ere edukitzeko eratzen den hamabi hilabete-ko datu-multzoa. Esaterako, EGMren bigarren olatua, hain zuzen ere udaberri-koa, kaleratzen denean, iazko udaberritik aurtengoa bitarteko hamabi hilabete-koen emaitzak gehitzen zaizkio, naturala ez den urte osoko marko orokorragoa emanez (urte mugikorra).

Usamonitor: Amerikako Estatu Batuetako telebistagintzaren egoera eta etorkizuneko joera nagusienak aztertzeko 1997an sortu zen ikerketa-behategi iraunkorra da. *Euromonitor* delakoaren sorreran zeuden hainbat ikertzaile eta helburu berberak aurki daitezke *Usamonitor*-en ere.

VOD (Video On Demand) (*Eskatu ahalako bideoa; Video bajo demanda/ Video a la carta; Vidéo à la demande*): Ikus-entzunezko produktuak gordetzen dituen artxibategi erraldoi baterako sarbidea errazten duen zerbitzu interaktiboa, zeinaren bidez, bertan dauden bideoak (filmak, dokumentalak edo bestelako generotakoak) diru truk jasotzeko aukera ematen duen. Gehienbat filmak ikusteko erabiltzen bada ere, gero eta gehiago dira bestelako zerbitzuak eskaintzen dituztenak: *TV On Demand, Games On Demand, Music On Demand eta Radio On Demand* dira horietariko batzuk.

Vodevil (Vaudeville): komedia arina, bere edukian gatza eta piperra, intriga, gaizki ulertuak eta sorpresa erakusten dituena. Beti ere, aktuazioak eta musika-tarteak edukitzen ditu.

Web TV: telebista-hargailuaren bitartez interneten nabigatzeko, e-posta jasotzeko/bidaltzeko edota txatetan parte hartzeko aukera eskaintzen duen sistema.

Webcasting: *World Wide Web* erabiliz, ikus-entzunezko edukiak zabaltzeko erabiltzen duen sistema.

Xake-taula (*Checkerboarding; Tablero de ajedrez/Tira de género*): Genero bereko programa desberdinekin eraikitako telebista-programazio horizontala da. Fikzioaren kasurako, asteko egun bakoitzean programa desberdin bat kokatzea. Ikus-entzuleen fideltasuna eta kanalaren identifikazioa lortzea zailagoa eta luzeagoa izaten da. Gainera, saio bakoitzak arrakasta-maila desberdina lortzea arazo bilaka daiteke.

Xede-talde (*Target group; Público objetivo; Publique objective/Cible/Population utile*): publizitate-kanpaina zein bestelako emanaldientzako helburu gisa definitzen den jende-multzoa.

Zapping (*Zapeo; Zapear; Evitement publicitaire*): publizitatetik ihesi edota gustuko programa bila ari denak teleagintearen bidez kanal batetik bestera egiten duen joan-etorria.

Zorizko lagin (*Random sample; Muestra aleatoria; Echantillon aléatoire/ Tirage aléatoire*): Probabilitate-lege hutsen arabera antolaturiko lagina. Aleatorioa, erabat.

Glosategirako informazio-iturriak:

AGB Group: TAM Glossary (www.agbgroup.com)

Alcaraz, Enrique, Hughes, Brian eta Campos, Miguel Ángel (1999): Diccionario de términos de marketing, publicidad y medios de comunicación, Ariel, Barzelona.

Alvarez, José María (1997): Imágenes de pago, Fragua, Madril.

Astra Glossary: www.ses.astra.com/tools/glossary/index.shtml

Cebrián, Mariano (1981): Diccionario de radio y televisión, Alhambra, Madril.

CMT (2002): La televisión digital terrenal en España. Situación y tendencias. Ikus: "Glosario" 126-139 orr.

Corporación Multimedia: Glosario (www.corporacionmultimedia.es)

DDM, CNC, CSA eta INA (2001): Indicateurs statistiques de l'Audiovisuel. Paris: DDM, CNC, CSA eta INA.

Euskaltel: Telekomunikazio hiztegia. <http://www.euskaltel.es>

Hastings, Raymond (2001): ESOMAR Marketing Research Glossary. ESOMAR: www.esomar.org

Interactive TV Today: www.itvt.com/glossary.html

Marketinterms: www.marketingterms.com/dictionary

Médiamétrie: Mémomédia (www.mediametrie.com)

Nielsen: Glossary of Nielsen Media Research Television Terms (www.nielsen.com)

Norsis: Gossary (www.norsis.com/glossary/glosario_d.htm)

SJTI (1999): Indicateurs statistiques de la Radio. Paris: SJTI.

SJTI (2000): Indicateurs statistiques de la Publicité. Paris: SJTI.

Spirale Media Lexique: www.spiralemedia.com

Syntec: Etudes Marketing & Opinion (www.syntec-etudes.com)

TVNT; Le site de la Télévision Numérique Terrestre ou Hertzienne: <http://www.tvnt.net/glossaire.htm>.

Vaca, Ricardo (1997): Quién manda en el mando, Madril, Visor. Ikus: 464-475 or.

Zabaleta, Iñaki (2002): Ikus-entzunezko informazioaren teknologia, UEU, Bilbo.

Zenithmedia Terminologia: www.zenithmedia.es